



**2018KO MAIATZAREN 4KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2018ko apirilaren 20ko akta, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 32 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteen dagoena, HIRUROGEITA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMALAU EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (74.394,99 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- LAZKAOKO SAN BENITO IKASTOLAKO GALDARA GELA ERABERRITZEA ETA GAS INSTALAKUNTZA BERRIA BURUTZEKO LANEN ESLEIPENA.-

Lazkaoko Udalak, 2018ko martxoaren 15eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, "San Benito Ikastolako galdara gela eraberritzeko eta gas instalakuntza berria burutzea" lanen kontratazio espedientearen onartu zuten eta erraztutako prozedura ireki bidezko deialdia egitzea erabaki zuten.

Iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2018ko martxoaren 15eko datuz eta horretarako irekitako denboraldian 3 enpresen proposamenak jaso ziren.

Aurkeztutako proposamenen dokumentazio administratiboa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak hiruak onartzea erabaki zuten.

Bestetik, balio-judizio baten irizpideen arabera puntuaziorako dagokion dokumentazioa aztertu ondoren, hauek dira beraiengatik Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioak:



ENPRESA	MEMORIA			PUNTUAZIOA GUZTIRA
	Instalazio berria eta galdera gelaren diseinua	Proposatutako galдарaren fitxa teknikoa	Eraikinaren etorkizuneko ezaugarriak	
PRONOR, S.L. (*)	6,5	4	4,2	14,7
CLIMATIZACIONES ORIO, S.L.	10,0	4	4,0	18,0
GIROA, S.A.	13,5	5	5,0	23,5

Ekonomi proposamenak aztertu ondoren, hauek dira beraiengatik Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioak:

Zb	ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA			GARANTIA		GUZTIRA
		Zenbateko a	Baja	Puntuake ta ekonomi.	Proposame n	Puntuaketa	
1	PRONOR	76.950,00	9,47	17,8	0 hilabete anpliazioa	0,0	32,54
2	CLIMATIZACION ES ORIO S.L.	47.884,00	43,67	65,0	24 hilabete anpliazioa	10,0	93,00
3	GIROA - VEOLIA	60.079,59	29,32	45,2	24 hilabete anpliazioa	10,0	78,71

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak aztertu ondoren, Climatizaciones Orio S.L. ren eskaintza neurrigabea edo anormala izan daitekeela ondorioztatzen da, eta kasu hauetarako legeak aurreikusten duen prozedura jarraituz eskaintza justifikatu zezan eskatu zitzaion.

Climatizaciones Orio S.L.k aurkeztutako justifikazioa ontzat eman zuen kontratazio mahaiak.

Ondorioz, Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioa, guztira, ondorengo da:

PROPOSAMENEN BALORAZIOEN ERRESUMENA					
Zb.	ENPRESA	Puntuak. Teknikoa	Puntuak. Ekonomikoa	Puntuak. Garantia	Puntuak. GUZTIRA
1	PRONOR	14,7	17,8	0,0	32,54
2	CLIMATIZACIONES ORIO S.L.	18,0	65,0	10,0	93,00
3	GIROA - VEOLIA	23,5	45,2	10,0	78,71

Hau honela, Kontratazio Mahaiak, San Benito Ikastolako galdera gela eraberritzeko eta gas instalakuntza berria burutzeko lanak egiteko Climatizaciones Orio S.L. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.



Climatizaciones Orio S.L. enpresak behin betiko bermea jarri eta eskatutakoak egin dituzenez, bere aldeko esleipen proposamena egiten da.

Honen guztiaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- "San Benito Ikastolako galdera gela eraberritzeko eta gas instalakuntza berria burutzea" lana esleitzeko lehiaketara aurkeztutako proposamenen artean, Udalarentzat abantailatsuen Climaticaciones Orio S.L. enpresak aurkeztutakoa dela jotzea, eta ondorioz, lanen egikaritzea Climaticaciones Orio S.L.-ri esleitzea.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena lehiaketara proposamena aurkeztu duten guztiei egitea.

Hirugarrena.- Climaticaciones Orio SL-ri esleipen honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasitako hamabost laneguneko epean kontratua izenpetzera etor dadin errekerimendua egitea.

IV.- LAZKAOKO SAN BENITO IKASTOLAKO JOLASTOKIAREN ESTALIA EGITEKO LANEN ESLEIPENA

Lazkaoko Udalak, 2018ko martxoaren 28ko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, "San Benito Ikastolako jolas tokiaren estalia egiteko" lanen kontratazio espedientea onartu zuen eta erraztutako prozedura ireki bidezko deialdia egitea erabaki zuen.

Iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu zen 2018ko martxoaren 28ko datuz eta horretarako irekitako denboraldian 4 enpresen proposamenak jaso ziren.

Aurkeztutako proposamenen dokumentazio administratiboa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak lauak onartzea erabaki zuen.

Bestetik, balio-judizio baten irizpideen araberrako puntuaziorako dagokion dokumentazioa aztertu ondoren, hauek dira beraiengatik Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioak:

ENPRESA	MEMORIA			PUNUAZIOA GUZTIRA
	Lan plangintza xehatua	Obra burutzeko proposamena	Hobekuntzak	
IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.	15,00	7,50	1,50	24,00
INDENORT PV S.L.	10,00	5,00	2,50	17,50
SASOI ERAIKUNTZAK S.L.	10,00	7,50	2,50	20,00
ALTUNA Y URIA S.A.	5,00	5,00	0,00	10,00



Ekonomi proposamenak aztertu ondoren, hauek dira beraiengatik Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioak:

Zb	ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA			GARANTIA		GUZTIRA
		Zenbat.	Baja	Puntuak. ekonom.	Propos.	Puntuak	
1	IPARRAGIRRE ERAIK. LANAK S.L.	341.506,20	10,97	63,0	5 aukera	10,0	73,0
2	INDENORT PV S.L.	334.434,49	12,81	65,0	5 aukera	10,0	75,0
3	SASOI ERAIKUNTZAK S.L.	341.362,24	11,00	63,0	5 aukera	10,0	73,0
4	ALTUNA Y URIA S.A.	374.304,53	2,41	53,5	5 aukera	10,0	63,5

Ondorioz, Kontratazio Mahaiak emandako puntuazioa, guztira, ondorengoa da:

PROPOSAMENEN BALORAZIOEN ERRESUMENA					
Zb.	ENPRESA	Puntuak. Teknikoa	Puntuaketa Ekonomikoa	Puntuak. Bermea	Puntuak. GUZTIRA
1	IPARRAGIRRE ERAIK. LANAK S.L.	24,50	63,0	10,0	97,47
2	INDENORT PV S.L.	17,50	65,0	10,0	92,50
3	SASOI ERAIKUNTZAK S.L.	20,00	63,0	10,0	93,01
4	ALTUNA Y URIA S.A.	10,00	53,5	10,0	73,54

Hau honela, Kontratazio Mahaiak, San Benito Ikastolako jolas tokiaren estalia egiteko lanak burutzeko Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresaren aldeko esleipen proposamena egin du.

Aran Zinegotziak (EH Bildu) esaten du beraien iritzia aurretik ere jakina dela.

Kontuan izanda Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresak behin betiko bermea jarri duela eta eskatutakoak egin dituela, honen guztiaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturakoen aldeko hiru boto (EAJ) eta bi abstentziokin (EH-Bildu), honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- "San Benito Ikastolako jolas tokiaren estalia egiteko" lana esleitzeko lehiaketara aurkeztutako proposamenen artean, Udalarentzat abantailatsuena Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresak aurkeztutakoa dela jotzea, eta ondorioz, lanen egikaritzea Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.-ri esleitzea.

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena lehiaketara proposamena aurkeztu duten guztiei egitea.

Hirugarrena.- Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.-ri esleipen honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasitako hamabost laneguneko epean kontratua izenpetzera etor dadin errekerimendua egitea.



LAZKAOKO
UDALA

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

